# XEDAPEN OROKORRAK

## ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 140

*HUTSEN ZUZENKETA, honako Dekretu honena: «234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikuluak xedatzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako hutsak aurkitu dira 234/2015 Dekretuaren testuan, abenduaren 22koan, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoan (2016ko urtarrilaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 5. zk.). Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen, I. eranskina eta II. eranskina argitaratuz, lehenago ez baitziren argitaratu.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**
Gizarte Politiketako Sailburuordetza
*Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES**
Viceconsejería de Políticas Sociales *Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario*

1. eranskina

## ESKABIDE EREDUA: TRANSEXUALAK GENERO IDENTITATEAGATIK EZ BAZTERTZEARI ETA HAIEN ESKUBIDEAK AITORTZEARI BURUZKO EKAINAREN 28ko 14/2012 LEGEAREN 7. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO ADMINISTRAZIO DOKUMENTAZIOA

(*) derrigor bete beharrekoak

### Eskatzailea *

◯ Titularra ◯ Ordezkaria

### Datu pertsonalak (zure egungo dokumentazioan agertzen direnak)

#### Titularra

Izena * ____________________

Telefonoa ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Lehenengo abizena * ____________________ Bigarren abizena * ____________________

Sexu biologikoa* ◯ Gizona ◯ Emakumea

Identifikazio-agiria * __________ Zenbakia * ☐☐☐☐☐☐☐☐-☐

Helbide elektronikoa: ____________________

Jaioteguna: __________ Nazionalitatea: ____________________

Erroldatze-udalerria: ____________________

Erroldatuta zauden lurralde historikoa: ____________________

Identifikazio berria (izena eta bizi duzun sexua) * ____________________

#### Ordezkaria[1]

Izena / Erakundearen izena ____________________

Telefonoa ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Lehenengo abizena ____________________ Bigarren abizena ____________________

Sexua ◯ Gizona ◯ Emakumea

Identifikazio-agiria __________ Zenbakia ☐☐☐☐☐☐☐☐-☐

Helbide elektronikoa: ____________________

Jaioteguna: __________ Nazionalitatea: ____________________

Erroldatze-udalerria: ____________________

Erroldatuta zauden lurralde historikoa: ____________________

[1] Eskatzailea adingabea denean, eskaera haren legezko ordezkariek egin beharko dute, eta ordezkaritza hori ziurtatu beharko da, ordezkaritza-egiaztagiriaren bidez.

## Jakinarazpen, komunikazio eta oharretarako hizkuntza *

◯ Euskara ◯ Gaztelania

## Jakinarazpenak jasotzeko helbidea

Helbidea * ____________ Zk. ____ Solairua ____ Letra ____

PK * [ | | | | ] Udalerria * ____________ Probintzia * ____________

## Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

**Aurkeztu beharreko dokumentazio ofizialak jatorrizkoa izan behar du, eta kopia batekin batera aurkeztuko da, erkatzeko.**

☐ Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa; horretarako, honako agiri hauetakoren bat aurkeztu behar da: Nortasun Agiri Nazionala, gidabaimena, Atzerritarren Nortasun Txartela edo jatorrizko herrialdeko agintaritza eskudunak emandako eta identifikazio-xedeetarako balio duen edozein agiri ofizial. Zalantzarik badago, dagokion agintaritza kontsularrak ziurtatuko du. Nolanahi ere den, erabilitako agiriak egileslearen argazkia eta sinadura izan behar ditu.

☐ Eskatzailearen aurpegiaren azken aldiko koloretako argazkia.

☐ Eskatzailearen bizilekua dagoen udalerriko Udalaren erroldatze-ziurtagiria. Gehienez ere dokumentazioaren eskatze-data baino hiru hilabete lehenago emandakoa onartuko da.

☐ Erregistro Zibilean pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketaren gobernu-espedientea abiarazi delako ziurtagiria. Espediente hori abiarazi ez bada, eskatzaileak ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako txostena aurkeztu beharko du.

☐ Hala badagokio, eskatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa.

## Baimenak

☐ Organo kudeatzaileari baimena ematen diot, bizilekuari buruzko datuak kontsultatzeko Estatistika Institutu Nazionalean.

☐ Organo kudeatzaileari baimena ematen diot, dekretu honek araupetutako administrazio-dokumentazioaren emakidari buruzko ebazpena honako honi jakinarazteko:

| Erakundea | Saila, administrazio-organoa edo -atala |
|---|---|
| ☐ Eusko Jaurlaritza | |
| ☐ Arabako Foru Aldundia | |
| ☐ Bizkaiko Foru Aldundia | |
| ☐ Gipuzkoako Foru Aldundia | |
| ☐ Udala | |
| ☐ Beste batzuk | |

## Datu Pertsonalen Babesa[2] (DPBL)

Eskabide honetako datuak fitxategi batean sartuko dira. Honako hauek dira fitxategiaren ezaugarriak:

- Izena: Pertsona transexualen administrazio-dokumentazioa.
- Titularra: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.
- Helburua: kudeatzea Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 7. artikuluak aipatzen duen administrazio-dokumentazioaren eskabideak.

Fitxategia Datuen Babeserako Euskal Agentziari jakinarazi zaio aldez aurretik, eta izan beharreko segurtasun-neurriak ditu. Hirugarren alderdiei ez zaie jasotako datuen berririk emango, legeak aurreikusitako egoeretan izan ezik.

Sartzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeko (DPBLak berariaz aitortzen ditu), harremanetan jar zaitezke eskabide hau kudeatzeko eskumena duen zuzendaritzarekin:

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

______ (Lekua) ______ (e)n , ______ (Data) ______

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

[2] Bat etorriz Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DPBLO) xedatutakoarekin.

II. eranskina- Txartel-eredua

Izena/Nombre:

Abizenak/Apellidos:



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Administrazio-dokumentazio honek bat egiten du ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 7. artikuluarekin eta Dekretuarekin

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO